



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

## **Oscar Arana eta José Luis Sagredo jaunek Batzar Nagusien Alkartezintasunerako Batzordearen oneretxia jaso dabe eta Euzko Abertzaleak Taldeko batzarkide barriak izango dira**

- **Juan María Aburto eta Idoia Mendiolaray ordezkatuak ditue, hurrenez hurren, hurrengo Batzar Nagusian batzarkidetasunaz jabetu ondoren.**

*Bilbon, 2013ko urtarrilaren 15ean.*

Bizkaiko Batzar Nagusietako Alkartezintasunetarako Batzordeak oneretxia emon deutse gaur batzarkide bioi hurrengo Batzar Nagusian batzarkidetasunaz jabetu daitezana. Juan María Aburto, Euzko Jaurlaritzako sailburu izendatutakoa, eta Idoia Mendiolaray, oraintsu zendutakoa, ordezkatuak ditue. Batzordeak gaur goizean egindako bileran ahobatez onartu dau bakotxari jagokon erizpena, Euzko Abertzaleak Taldeko batzarkide barri biok hurrengo Batzar Nagusian, behin egin beharreko deia egin eta gero, batzarkidetasun osoaz jabetu daitezana.

Oscar Arana Juan María Aburtoren ordezkari izango da Bilboko barrutitik. 53 urte ditu eta Bilboko Industria Ingeniariei Eskola Nagusian industria ingeniari egin zan 1985. urtean. Enpresen Kudeaketan masterra eginda dauka Madrilgo IE Business School dalakoan eta doktoradutza tesia Bizkaiko mikroenpresen kalidade kudeaketaren inguruan. 15 urte daroaz irakasle moduan UPV/EHU. Gaur egun, unibertsitateko irakasle izateaz gain, Activa enpresearen manager aholkulari da —enpresa industrial eta zerbitzukoentzako kudeaketa aholkularitza eskaintzen dau enpresa horrek— eta industri enbalejerako produktuak egin eta saltzen dituan Euskopack enpresearen kudeatzaile be bada.

Beste alde batetik, José Luis Sagredo oraintsu zendutako Idoia Mendiolaray andrearen lekuan sartuko da. Basaurin jaio zan eta EUHko Sarririkoko fakultateko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako lizentziatua da. EAJ alderdiaren Lurralde Batzarreko ahalduna da eta alderdiko diruzaina be izan zan Galdakaon. Azken foru-hauteskundeetan zazpigarren egoan EAJ-PNVren Durango-Arratiako zerrendan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales aprueban la compatibilidad de Oscar Arana y José Luis Sagredo para convertirse en nuevos apoderados del Grupo Nacionalistas Vascos**

- **Sustituirán a Juan María Aburto e Idoia Mendiolagaray, respectivamente, tras la toma de posesión de sus asientos en un próximo pleno.**

*Bilbao, a 15 de enero de 2013.*

La Comisión de Incompatibilidades de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado el visto bueno hoy a que Oscar Arana y José Luis Sagredo se conviertan, en una próxima sesión plenaria, en apoderados del parlamento vizcaíno. Los dos nuevos representantes de Bizkaia sustituirán así a Juan María Aburto, nombrado consejero del Gobierno Vasco, y a la fallecida Idoia Mendiolagaray. La Comisión ha aprobado esta mañana por unanimidad el dictamen preceptivo, paso previo a la asunción de los escaños como miembros del grupo Nacionalistas Vascos para este IX Mandato.

Oscar Arana es la persona designada para sustituir a Juan María Aburto por la circunscripción de Bilbao. Este Ingeniero Industrial de 53 años acumula quince años de experiencia como docente en la UPV/EHU. En la actualidad, además de profesor universitario, es también consultor “manager” de Activa, una consultoría de gestión especializada en empresas industriales y de servicios, y gerente de Euskopack compañía dedicada a la fabricación y comercialización de productos para el embalaje industrial.

Por su parte, José Luis Sagredo ocupará el asiento de la recientemente fallecida Idoia Mendiolagaray. Natural de Basauri, de 59 años, Sagredo es Licenciado en Ciencias Económicas y Empresariales por la facultad de Sarriko-EHU. Es apoderado en la asamblea territorial del PNV y llegó a ser tesorero de este partido en la localidad de Galdakao. Ocupó el puesto número siete en la lista electoral de EAJ-PNV por la circunscripción de Durango-Arratia en las últimas elecciones forales.